Bilboko Kirol eta Gazteria Sailak **Bilbao Gazte Balioak Martxan sarien** deialdia egiten du haien ingurune soziala hobetu nahi duten gazteen ekimenak ezagutarazteko eta laguntza emateko.

OINARRIAK

Lehenengoa: Deialdiaren helburuak

- Sorkuntza, konpromisoa eta esfortzurako gaitasuna sustatzea, eskaera sozialen zerbitzuan jarrita.
- Gazteen ikuspegitik, balioetan oinarritutako Bilboren eraikuntza bultzatzea.
- Ekimen edo proiektu sozial, artistiko, kultural, ekologiko, ekonomiko, zientifiko, digital, teknologiko... bat duten gazteei aukera ematea, benetan gauzatu dezaten.

Bigarrena: Zer ekimen edo proiektu bilatzen dugu?

Ideia edo proiektu berritzaileak bilatzen ditugu, balio hauetako bati edo batzuei lotuta dauden eskaera sozialei erantzuna ematen dietenak:

- Giza eskubideen errespetua
- Elkartasuna
- Parte-hartzea
- Konfiantza
- Sormena
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna
- Ingurumenaren iraunkortasuna
- Konpromisoa
- Justizia soziala
- Dibertsitatea

Erreferentziako balioren bat zerrendan ez dagoela uste baduzu, zabaldu ezazu (begiratu inskripzio-orria).

Ekimenak/proiektuak:

- Bilboko esparru geografikoan egin behar dira.
- Epaimahaiak hautatutako ideiak 2018-12-31 iritsi aurretik egin beharko dira, eta emaitza ukigarria izango dute, Bilbon inpaktua duena. Egun horretarako osorik gauzatuta ez dauden proiektuak ere aurkeztu eta hautatu ahal izango dira, baina proiektuko faseren bat burututa egon beharko da egun horretarako, eta nortasun aski izan beharko du, neurtzeko moduko emaitzak izateko.

Hirugarrena: Deialdia nori zuzenduta dagoen

Deialdia 14 eta 35 urte bitartean dauden eta kategoria bakoitzean eskatutako baldintza zehatzak betetzen dituzten gazteei zuzenduta dago.

Proiektuak **kategoria** hauetako batean aurkeztu beharko dira:

- **Ikastetxeak:** kategoria honetara aurkeztu daitezke Bilbon kokatuta dauden eta DBHko 2. mailako, Batxilergoko edo gradu ertaineko ikasleek sustatutako proiektuak aurkezten dituzten ikastetxeak. Proiektuaren buru diren ikasleen taldeak gutxienez irakasle baten laguntza eta sostengua izan beharko ditu prozesu osoan.

  Ikastetxe bakoitzak bi proiektu aurkeztu ahal izango ditu gehienez deialdira.

- **Unibertsitateko graduko edo goi graduko ikasleak**: kategoria honetara aurkeztu ahal izango dira Bilbon dauden unibertsitateetan edo zentroetan unibertsitateko graduko edo masterreko ikasketak edota goi mailako prestakuntzako zikloak egiten ari diren ikasleak. Proiektua ikasle batek edo ikasle-talde batek (gehienez 7 lagunekoa) aurkeztu ahal izango du, eta ordezkari bat izendatu beharko dute haien artetik, prozesu osoan barrena Udalaren aurrean jardun dezan. Ikasleak gradu berekoak edo gradu desberdinekoak izan daitezke, 35 urte baino gutxiago izan beharko dute, eta gutxienez haietako batek Bilbon erroldatuta egon beharko du.

- **Kolektiboak eta/edo gazteak:** proiektua aurkeztu ahal izango du Bilbon erroldatutako 35 urtetik beherako gazte batek, gazteen entitate batek (irabazi asmorik gabekoa den eta erakunde gisa Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta dagoen elkarte batek, edo Bilbon helbidea duen eta gehienbat 35 urtetik beherako gazteek eratuta dagoen merkataritzako entitate batek) edo gazteen talde batek (gehienez 7 lagunekoa); azken kasu horretan, ordezkari bat izendatu beharko dute haien artetik, deialdi honi dagokion prozesu osoan barrena Udalaren aurrean jardun dezan. Era berean, kasu horretan, denek 35 urte baino gutxiago izan beharko dute, eta gutxienez haietako batek Bilbon erroldatuta egon beharko du.

Laugarrena: Nola emango dizugu laguntza?

Hautatutako proiektuek diru-kopuru bat jasoko dute, sari gisa, betearazi ahal izateko.

Kategoria bakoitzean, gehienez 10 ideia edo proiektu hautatuko dira.

- 8 ideiak 3.000 €-ko saria jasoko dute.
- 2 ideiak 5.000 €-ko saria jasoko dute.

Sariek %19ko atxikipen fiskala izango dute, Eusko Jaurlaritzaren mendeko ikastetxe publikoei emandakoak izan ezik.

Aurkezten diren eta deialdiko baldintzak betetzen dituzten gainerako ideiak puntuazio-ordenaren arabera zerrendatuko dira, eta erreserban gordeko dira, hasieran hautatutako ideiaren bat bertan behera utzi edo deskalifikatuz gero eskueran izateko.

Kategoriaren batean sariak hutsik geratuz gero, diru-kopurua beste kategoria batean aurkeztutako ideiaren edo proiekturen bati bideratu ahal izango zaio. Nolanahi ere, kalitatea,

originaltasuna, bideragarritasuna eta inpaktua aintzat hartuta, epaimahaiaren ustez proposamenak maila jakin batera iristen ez badira, Udalak beretzat gordetzen du sariak hutsik uzteko aukera, gero dirurik esleitu gabe.

Bosgarrena: Noiz, nola eta non aurkeztu proiektua?

Informazioa, oinarriak eta izena emateko fitxategia bilbaogazteren sare sozialetan eta ondoko helbidean daude eskuragarri: bilbaogazte.bilbao.eus.

Proposamenak bidaltzeko epea 2018ko martxoaren 1ean hasi, eta 2018ko martxoaren 31n amaituko da, 23:59an, eta helbide honetara igorri beharko dira: balioakmartxan@bilbao.eus

Kirol eta Gazteria Sailak interesdunengana jo ahal izango du, aurkeztutako ideietako edo proiektuko xehetasunak edo eskaerako datuak zehazteko, argitzeko edota osatzeko.

Seigarrena: Baloratzeko irizpideak

- Sorkuntza, originaltasuna eta izaera berritzailea.
- Proiektua edo ideia gauzatzeak izan dezakeen inpaktua eta interes soziala.
- Gazte sustatzaileen lidergoa, ekimena diseinatzeko eta betearazteko prozesuan.
- Ehun sozialaren parte-hartzea ideia diseinatzean eta/edo egitean.
- Ekimenaren bideragarritasuna.
- Proiektuaren kalitate teknikoa.
- Proiektuaren iraunkortasuna.

Zazpigarrena: Epaimahaia

Hiru pertsonak osatuko dute:

- Kirol eta Gazteria Saileko ordezkari bat.
- Deustuko Unibertsitateko Bilbao Balioen Hiria udal-proiektua idatzi duen taldearen ordezkari bat.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) ordezkari bat.

Epaimahaiak eskumena izango du deialdiko baldintzak betetzen ez dituzten proiektuak edo lehiatzaileak onartzeko edo deskalifikatzeko, deialdiko sari bat edo denak hutsik uzteko, eta sarien irabazle diren pertsonak, erakundeak, taldeak edo ikastetxeak zein diren adierazteko.

Epaimahaiaren epaia eta sariak banatzeko ekitaldia jendaurrean egingo dira.

Ekitaldi hori egin ondoren ordainduko dira sariak.

Zortzigarrena: Irabazleek aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Foru Ogasunarekiko betebeharren ordainketa egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Adierazpen arduratsua, Diru-laguntzei buruzko Legeak 13. artikuluan eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legeak 24.2 artikuluan jasotako debekuen eraginpean ez dagoela egiaztatzeko. Kirol eta Gazteria Sailak horren eredua eskuratuko du.
- Onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa ez bada, Ogasun eta Gizarte Segurantzako ziurtagirien ordez, ADIERAZPEN ARDURATSU bat aurkeztu ahal izango da.

Bederatzigarrena: saritutako lehiakideen betebeharrak

- Lehiaketan parte hartzeko eskaera aurkezteak deialdiaren oinarriak inplizituki onartzea dakar berekin.
- Ekimenaren diseinua, garapena eta betearazpena sustatzaileen ardurapean egingo dira.
- Pertsona eta entitate irabazleek proiektatutako moduan betearazi beharko dute ideia edo proiektua. Aldaketaren bat eginez gero, behar bezala justifikatu beharko da, eta Gazteria eta Kirol Sailak baimendu beharko du. Proiektua betearazi ezean, edo akatsez, aldatuta edo baimenik gabe eginez gero, lehiakideek saria itzuli beharko dute. Bilboko Udalak saria osorik edo zati bat itzultzeko eskatu ahal izango du.
- Parte hartzea –behar bezala justifikatutako arrazoiren bat dagoenean izan ezik–, epaimahaiaren erabakia jakinarazteko, sariak banatzeko eta/edo egindako proiektuak aurkezteko Bilboko Udalak antolatutako jendaurreko ekitaldietan. Antolatutako ekitaldiak Bilboko udal-barrutian egingo dira.
- Proiektua betearazi ondoren, saritutako entitateek edo pertsonek prozesua deskribatzeko memoria aurkeztu beharko diote Kirol eta Gazteria Sailari, bai eta emaitzen balorazioa ere, azaldutako helburuen betetze-mailaren eta izandako inpaktu sozialaren ebaluazioarekin. Memoriak prozesuaren fase desberdinen argazkiak eta bideo bat eduki beharko ditu, bai eta parte-hartzaileek hortaz egindako balorazioa ere.
- Lehiaketan izena emateak berekin dakar memoria, argazkiak eta bideoak zabaltzeko eskubideak lagatzea, Bilboko Udalak erabil ditzan, hala bere webgunean, nola sare sozialetan, edo ideiak, sariak eta programa oro har zabaltzeko interesgarritzat jotzen duen bestelako bide batez.

Hamargarrena. Oinarri honetan ezarri ez denari dagokionez, osagarri gisa, Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek eta entitateek egindako deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorrak xedatutakoa beteko da. 2016ko ekainaren 30ean onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak, eta 2016ko uztailaren 20an argitaratu zen BAOn, 138. zenbakian.